

# LITERATURA, IBERISMOA(K), NAZIONALISMOA(K): IBERISMO LITERARIOAREN HISTORIA BATERAKO OHARRAK (1868-1936)<sup>1</sup>

**Santiago Pérez Isasi**

*Universidade de Lisboa*



**Laburpena** || Iberismo politikoa, XIX. eta XX. mendeetan agertu den uneoro, aztertu eta ikertu izan da nahi beste; halere, ez da gauza bera gertatzen iberismo kulturalarekin (espainiar eta portugaldar kulturak hurbiltzeko joera, harreman historikoetan oinarrituta). XIX. mendearen azken hamarkadak eta XX. mendearen hasiera izan ziren bereziki emankorrak kultura eta literatura trukaketa eta topaketetan, ez soilik Lisboa-Madril ardatzean, baita nazionalitate iberiar periferikoetan ere (Katalunia, Galizia, Euskal Herria); dena dela, oraindik egin gabe dago kulturen arteko elkarriketa hori sistematizatu eta azal lezakeen ikerketa zabal bat.

**Hitz gakoak** || Iberismoa | Nazionalismoa | Ikerketa Iberiarrak | XIX. mendea | XX. mendea

**Abstract** || Political Iberism (or Iberianism), in its multiple manifestations during the 19th and 20th centuries, has already been studied and historicized; the same cannot be said about cultural Iberism: the impulse towards an approximation of Spanish and Portuguese cultures, based on their historical interrelations. The last decades of the 19th and the first decades of the 20th century are especially generous in literary and cultural encounters and exchanges, not only in the Lisbon-Madrid axis, but also throughout the peripheral Iberian nationalities (Catalonia, Galicia, Basque Country); however, we are still lacking a comprehensive study to systematize and explain these cultural dialogues in their historical context.

**Keywords** || Iberism | Nationalism | Iberian Studies | 19th century | 20th century.

## 0. Iberismoa(k), nazionalismoa(k)

Azken aldian, literatur eta kultur harreman iberiarren ikerketak arreta gero eta handiagoa erakarri du (horren adibidea ale monografiko hau berau da), eta bilera zientifiko eta argitalpen ugari ekarri ditu arreta horrek, bai Iberiar Penintsulan bertan, baita Europan zehar (bereziki Erresuma Batuan) edo Estatu Batuetan ere<sup>2</sup>. Harreman iberiarretara egindako nazioarteko hurbilketa horiekin lortu nahi da honako hau: azken bi mendeotan literatur ikerketei, orokorrean, eragin dien zatikatze estankoa gainditzea. Baita, kasu zehatz honetan, Espainia eta Portugalen elkarrekiko mesfidantza eta ezjakintasunaren tradizio luze bati aurka egitea ere, jadanik egoera hori topiko kritiko eta literarioa bihurtu da eta. Casasek esparru geokultural iberikoa, polisistemen teoriaren postulatuari jarraiki (Even Zohar, 1990), definitzen zuen *makropolisistema* bat bezala:

De hecho, el espacio geocultural ibérico admitiría ser estudiado como un ejemplo de (*macro*)*polisistema*, entendido este, al modo de Even-Zohar, como un grupo de literaturas nacionales vinculadas históricamente que mantienen entre sí una serie de relaciones jerárquicas y de flujos repertoriales o interferencias [...]. Lo importante, para empezar, sería tan sólo la aceptación de que ese (macro)*polisistema* ibérico, que aquí se optará por denominar *polisistema interliterario ibérico* — o, a partir de una convención homóloga a la establecida por Even-Zohar, simplemente *sistema interliterario ibérico* — dista de consistir en una mera yuxtaposición de sistemas. (Casas, 2003: 73-4)

Elkarrizketa iberikoetara egindako hurbilketa hauek, nahitaez kontu politikoei —hala nola nortasun kolektiboa zein boterea eta diskurtsoaren arteko harremanaren kontua— aurre egiten badiete ere, ez dute agenda politiko ageririk, horren esanahi agerianean (hau da, Espainia eta Portugalen batasun prozesua) ez dute dauden nazionalismoak ordezkatzeko lituzkeen nazionalismo esentzialista berria aldarrikatzen. Beste modu batera esanda, Iberiar Ikerketak ez dira egitasmo iberiarren Troiako Zaldia. Hala ere, alderantzizko norabidean, nabarmena da iberismoa (edo iberismoak, gerokoan ikusiko dugun bezala) XIX. eta XX. mendeetan sortu eta garatu ziren legez, parte garrantzitsua direla Iberiar Ikerketen aztergai gisa, izan ere, haiek baitira denboraldi honetan bi herrialdeen artean eman diren topaketen agerpen nabariena (baina ez bakararra).

Espainia eta Portugalen arteko harremanen ikerketaren ildo honetan kokatzen da, hain zuzen ere, lan hau. Gure helburua, berriz, ez da iberismo politikoaren ikerketa, baizik eta iberismo kulturalarena, gerokoan definituko dugun terminoetan. Zehazki, ondoko orrialdeetan, XIX. mendeko azken hamarkadetakoa eta XX. mendeko lehenengoetako literatura eta iberismoaren arteko harremanetaraurbilketa panoramiko bat egiteko asmoa daukagu (geroko lan monografikoetan sakondu beharko dena).

## OHARRAK

1 | Lan hau gauzatu da doktorego ondoko ikerketa beka bati esker, Fundação para a Ciência e a Tecnologia de Portugal erakundearen eskutik, “Portugal na Ibéria: mapa das relações literárias peninsulares (1870-1930)” proiektua garatzeko (Ref: SFRH/BPD/78570/2011).

2 | Arlo berri honetan azpimarra daitezkeen argitalpenen artean, ikus Epps eta Fernández Cifuentes (2005), Buffery *et al* (2007), Resina (2009), Domínguez *et al* (2010), Martín-Estudillo eta Spadachini (2010) edo Pérez Isasi eta Fernandes (2013).

Horretarako, bi zentzu desberdinetan landuko dugu gaia (testu honetako atal nagusiei dagozkienak): lehenbizi, iberismo literarioa izan zitekeenari edo izan beharko lukeenari buruzko zenbait ohar eskainiko ditugu, hau da, iberismoaren auzian idazle eta intelektual espainiar eta portugaldarren ekarpena, batez ere (baina ez soilik) zentzu kulturallean; bigarrenik, eta nolabait alderantzizko norabide batean, iberismoak espainiar zein portugaldar literaturako zenbait idazlerengan izan zezakeen eragina aztertuko dut, esaterako Teófilo Braga edo Menéndez Pelayo bezalako idazle handiengan. Horrek zalantzan jartzen du literatur historia ezinbestean egitismo nazional, nazionalista eta nazionalizatzaile izan behar denik, XIX. mendearen hasieratik aurrera nagusi den ereduak dioen bezala.

Nahitaezkoa da, dena dela, lehenbizi iberismoaren kontzeptua argitzea, terminoak hainbat interpretazio onartzen dituelako, eta azken bi mendeotan, gehiegizkoan, hainbateko proposamen eta jarrera definitzeko erabili izan dute. Beraz, Sardica (2013: 24-6) eta Matos (2007: 170) egileen iritziarekin bat, ondoko karakterizazioa ezar dezakegu, iberismoaren mota desberdinak direla eta:

- Iberismo ekonomiko hutsa, Penintsula barneko aduanak ezabatzea eta *Zollverein* iberiarra sortzea aldarrikatzen duena, Sinibaldo de Masek *La Iberia* lanean (1851) proposatu zuen bezala. Edonola ere, iberismoaren oinarritzko testu honek, ekonomikoaz gain, batasun politikoa ere proposatzen du.
- Iberismo zehazki politikoa (eskuarki iberismo *tout court* izendatzen den hori), Espainia eta Portugalen integrazioa, batasun politikoa komun batean, aldarrikatzen duena<sup>3</sup>. Era berean, iberismo honek historikoki hainbat aldaki erakutsi izan ditu, garrantzitsuenak unionista edo dinastikoa (bi nazioen fusioa koroa bakarraren menpe), eta federalista-errepublikazalea, Portugalen XIX. mendearen azken urteotan korrante nagusia izan zena. Espainia aldean, Portugalen baino gehiago, bereiz daitezke ere proposamen anexionistak, Portugal Espainiako eskualde bat bezala irenstea proposatzen zutenak (esaterako Pío Gullónen testu polemikoa, *La fusión ibérica*, 1861); horien aurrean kokatzen dira batasun politikoa aldarrikatzen zutenak, lehenagoko nortasun nazionalak desagerraraztea suposatzen ez zuena (hala nola, katalanismoak XX. mendearen hasieran luzatutako proposamen iberiarzaleak).
- Iberismo kulturala, Espainia eta Portugalen hurbilketa aldarrikatzen duena, herrialde bien arteko lotura historikoki estua abiapuntutzat hartuta, baina inolako batasun politikorik defendatu gabe<sup>4</sup>. Agian, iberismoaren hirugarren mota honen testu funtsezkoena, ondoko egileengan izan zuen eraginagatik, Oliveira Martinsen *Historia de la civilización ibérica* izan daiteke.

## OHARRAK

3 | Iberismo politiko hau izendatu dute, era berean, «nazionalismo iberiarra», Rocamora dio (1994), berez, “los argumentos esgrimidos para defender la unión ibérica son asimilables a los utilizados por los nacionalismos europeos, especialmente los encaminados hacia unificaciones, como germanismo, italianismo, escandinavismo o paneslavismo” (19). Dena dela, baieztapen honek eztabaidagarria dirudi, agiri iberiarzaleetan zaila delako nazio iberiar bakar baten existentziaren aipamena aurkitzea; sarriago agertzen da bi nazioen (edo gehiagoren) batasunaren defentsa, bai monarkia baten pean, bai formatu federalean, baina nazionalitateak ezabatu gabe. Hain zuzen ere, badago honako hau baieztatzen duena: iberismoa, bere helburuen kontra, nazionalismo portugaldarra garatu zuen indarra izan zen, XIX. mendean (Matos, 2006: 352).

4 | Gehitu zitekeen, laugarren kategoria bezala, baina jada ez iberismoaren aldaki bezala, «lusofilia» (espainiarren kasuan) arrunta edo «hispanofilia» (portugaldarren kasuan), azken bi mendeotan iberismoarekin parekatu da-eta, beste gogoetarik gabe.

Ondoko orrialdeak iberismo kultural honi eskainiko dizkiogu; zehazki, literatur arloan sortarazi dituen ondorioez arituko gara. Dena dela, oraindik nahitaezkoak dira zenbait zehaztapen, iberismoaz eta XIX. mendean zehar garatu ziren mugimendu nazionalistez. Esan dezagun, lehenbizi, iberismoaren agerpena eta garapena (berezi horren aldaki zehazki politikoarena) ez dela fenomeno isolatua, ez baitzen garaiko korrante politikoetatik zein pentsamenduetatik at agertu. Berez, horren agerpena soilik uler daiteke Europako nazionalismoei eta horien bilakaerari lotuta, XVIII. mendearen amaieratik XX. mendearen hasierara arte.

Hain zuzen ere, Frantziako Iraultzatik 1970. urtera arte, gutxi gora behera, Europan zehar barreiatu zen ideologia nazionalistaren lehen aldaki bat, orokorrean aurrerapenaren ideia liberalarekin batera. Nazionalismo bateratzaileen jarrera hartu zuen, «atariko printzipioaren» arabera, nazio txikiak ez bailukete ez baliabiderik ez aukerarik hiritarren ongizatea eta segurtasuna bermatzeko. Testuinguru honetan jaio ziren iberismo ekonomikoa eta iberismo politikoa, biak eragin liberal sendo batez. Iberiarzaileen lehen belaunaldi honetakoek, orokorrean monarkiaren aldekoek baina ez absolutistek, espainiar eta portugaldar estatuen batasuna proposatzen dute (hainbat mailatan eta formula desberdinekin), bi nazioak pairatzen ari diren gainbehera gaintzeko irtenbide bezala, koloniako lurraldeak galtzen ari baitziren, eta nazioartean haien eragina moteldu baitzen.

Iberismoaren lehen olatu hau, oihartzun zabala izanagatik ere, batez ere Portugalen (gizartean zenbaterainoko eragina izan zuen iritzi desberdinak dauden arren), benetako aukera politiko bezala 1870. hamarkadaren ostean agortu zen. Hainbat arrazoi egon daitezke gailentasun ideologiko horren galtze azkarrean, barnekoak zein kanpokoak. Beraz, Rocamorak (1994: 111) baieztatzen duen bezala, E. Hobsbawmen iritzitik ez urrun, 1870etik, gutxi gora behera, Europako mugimendu nazionalistek eragiteko indarra duten arren, norabidea aldatzen dute: gehiengoa jada ez da liberala eta bateratzailea, gero eta kontserbadoreagoa eta sezesionistagoa baizik (ikus ditzagun euskal, galiziar edo kataluniar nazionalismoaren kasuak, XIX. mendearen azken hamarkadetan indar handia bereganatu zutenak); garai nazionalista berri honetan, arlo linguistiko eta etnikoa osagai nagusia bihurtzen da, aurreko garaiko irizpide hiritar, ekonomiko edo *realpolitik* delakoaren kalterako. Horregatik iberismo politikoa, nazionalismo bateratzailea eta utopia liberalen oinordekoa, 1870. urtetik aurrera bigarren mailara pasatu zen, estatuko eta aldirietako nazionalismoek zein orientabide kolonizaleek aurrea hartu zioten eta<sup>5</sup>, krisi garaietan emandako bizialdiak gorabehera (esaterako, 1890ean ingelesaren Ultimatumak edo 98ko Hondamendiak sortu zutena).

---

## OHARRAK

5 | «Como dice Jover Zamora, el iberismo aparece en 1874 derrotado, siendo una idea perteneciente al pasado o al futuro, pero no al presente, siendo superado como proyecto por el africanismo al igual que ocurría en Portugal». (Rocamora, 1994: 112)



Edonola ere, 1868tik aurrera bi fenomeno gertatu ziren, esanguratsuak eta iberismo portugaldarraren ahultasunari kontrajarriak: alde batetik, esparru kulturaletik eta ez politikotik, iberismoak bultzada berria jaso zuen, «Geração de 70» belaunaldiko idazleen partez, Antero de Quentalak *Portugal perante a Revolução de Espanha* (1868) eta *Causas da decadência dos povos peninsulares* (1871), edo Oliveira Martinsek la *História da Civilização Ibérica* (1879) argitaratu zituztenean; lan horiek nolabaiteko iberismo maila daukate zentzu politikoan<sup>6</sup>, baina ezarritzat hartzen dute Espainia eta Portugalen arteko harreman historiko estua, eta eragin handia izango dute ondoko hamarkadetan Menéndez Pelayo edo Miguel de Unamuno idazleengan.

Beste aldetik, iberismoak aliatu bat aurkitu zuen XX. mendeko katalanismoan, espainiar-portugaldar federazio alegiazko bati Gaztelako gehiegizko (haren iritzian) botere zentralizatzailea indargabetzeko bidea irizten ziolako (Rocamora 1994:135; Martínez Gil 2013). Prat de la Riba moduko politikoak edo Joan Maragall bezalako intelektualak ados agertu ziren (kon)federazio iberiar bat sortzekotan, Penintsulako nazionalitateek (Galizia-Portugalek, Gaztelak eta Kataluniak, zenbait kasutan baita Euskal Herriak ere) nortasun propioa gorde zezaten<sup>7</sup>.

Ez dago zalantzarik, beraz, iberismoa modu egokian uler dezagun, Europako nazionalismoekin batera aztertu behar dela, baita Penintsulako nazionalismoekin ere: horrela da, lehenbizi iberismoa da Europako mugimendu bateratzaileei (batez ere Italiakoa eta Alemaniakoa) emandako erantzun iberiarra, herrialde txikien bideragarritasuna ezbaian jartzen zen momentu batean; era berean, bada bi estatuen egoeraren aurrean emandako irtenbide posibilista bat, Espainia eta Portugal makurtuta zeuden, dekadentzia propioaren kontziente ziren, eta birsortzeko nahia bazeukaten; azkenik, Espainian, XIX. mendearen amaiera aldean sortu ziren nazionalismo separatistekin elkar lotzen da, bereziki katalanarekin, zentralismoaren aurka eta Gaztelaren aurka bultzada sendoa partekatzen du eta.

## 1. Iberismoaren historia bat literaturan

Iberismoaren historia, mugimendu politiko bezala, idatzita dago jadanik, ikusi dugun legez, honako idazleen lanetan: dagoeneko aipatu ditugun Rocamora (1994), Matos (2006, 2007) edo Sardica (2013); iberismo kulturala, berriz, aurreko atalean definitu dugun legez, eta bereziki mugako bi aldetan dituen lotura eta agerpen literarioetan, oraindik ikerketa sakon eta argigarri baten zain dago, ondoko herrialdearekin nolabaiteko harreman bat, azalekoa zein

## OHARRAK

6 | Azpimarragarriago da Antero de Quentalen kasua. Nazionalitate portugaldarrari uko egiteko iradokizuna luzatu zuen, eta horrek iberiarzale moderatuagoen gaitzespena ekarri zuen, hala nola Teófilo Braga edo Oliveira Martins bera. Sérgio Campos Matosek honela azaltzen du: «Entusiasmo com a revolução espanhola de 1868, em nome de um ideal democrático e republicano-federalista, [Antero] proclamou até que se devia renegar a nacionalidade (esta não passaria dum instrumento dos poderosos, um 'obstáculo desgraçado, resto das hostilidades fatais de séculos bárbaros'. [...] Ao invés do que frequentemente se escreve, embora sustentando a necessidade de uma aproximação diplomática e cultural com a Espanha, Oliveira Martins sempre defendeu a autonomia política de Portugal, ditanciando-se inequivocamente do unitarismo iberista» (2007: 173-4)

7 | Mende amaierako nazionalismo galziarrak (ondorengoak ere bai) izan zuen osagai anexionista edo lusitanista, baina, Kataluniako kasuan ez bezala, joera bateratzaile honek ez zuen ia erantzunik Portugalen (Molina, 1990: 33). Euskal nazionalismoa dela eta, ikerketa sakonagoak egin ezean, ez dirudi garai hartan Katalunian sortu ziren formulazio iberisten antzekorik egon denik.

sakonagoa, izan zuten idazle eta idazlan espainiar eta portugaldarren zenbatze hutsetik harago joango dena<sup>8</sup>.

Halako historia batek, beraz, egin beharko luke iberismoan, zentzu kulturalan (iberismo politikoaren *addendarekin* ala ez), parte hartu zuten idazleen zenbatze ahalik eta inklusiboena; hau da, bi herrialdeetako literaturaren hurbilketa handiagoa proposatu zuten idazleak, lehenaldi eta kultura komunak —edo, behintzat, elkarrekiko harreman eta interferentziaz beterikoa— abiapuntutzat hartuta; baina, era berean, izen eta idazlanen aipamen hutsetik harago joan beharko luke, iberismo kulturalaren bilakaeraren ikuspen konplexu eta arrazoitua eskaintzeko, garaiko iberismo *tout court* delakoarekin ez ezik, beste mugimendu literario, kultural, sozial eta politikoekin ere harremanetan jarriz<sup>9</sup>; iberismo kulturalaren eragina erraztu edo mugatzen duten taldeko zein belaunaldiko joerak (hainbat kasutan oso argiak) dauden aztertuz; Penintsulako esparru kulturalen arteko harreman sistemikoetako norbanakoaren harremanak, gorabeheratsuak sarritan, bereiziz<sup>10</sup>, eta, azkenik, harreman iberiar hauek beste harreman literario eta kulturalen testuinguruan kokatuz (europarrekin, baina baita itsasoaren bestaldeko lurraldeekin ere): honelaxe soilik azter liteke, modu egokian, harreman iberiar literarioen esanahia eta garrantzia.

Ez da nire asmoa, datozen orrialde urrietan, iberismo kulturalaren historia hori garatzea, horren lerro nagusietako batzuk eta mugari ukaezin batzuk aipatu nahi ditut, 1869 eta 1936ko tartean<sup>11</sup>. Data horiek ez ditut halabeharrez aukeratu: 1868 Espainiako Iraultza Loriaitsuaren data da, ikusi dugunez Portugaleko errepublikazaleen artean eragin handia izan zuena, horren adibide Antero de Quentalen idazkia, *Portugal perante a revolução na Espanha*. Data horrek, beraz, bi gurutzagune markatzen ditu iberismoaren ibilbidean: alde batetik Portugalen abandonatzen da liberal-unionismoaren aukera, errepublika-federazioaren alde; beste aldetik gehiengo batek (baina ez denek, jakina) iberismoaren aspektu ekonomikoa edo politikoa ordezkatzeko du, bi herrialdeak batzen dituzten lotura historiko eta kulturalen faborez. Aztertutako aldiaren amaiera markatzen duen data, 1936, ez da, jakina, hautazkoa: Espainiako Gerra Zibilaren hasierak, Portugalen jada 1933. urtetik Estado Novo indarrean zegoenean, harreman iberiarren (politiko zein kulturalak) aldi berri bat zabaltzen du. Elkarriketa zein hurbiltasuna ez ziren izan garai horren ezaugarri nagusiak.

Iberismo kulturalaren historiak, XIX. mendearen azken herenean, hasi behar du, beraz, 70eko Geração delakoaren idazleen jarreraren ikerketarekin, bereziki dagoeneko aipatu ditugun Antero de Quental eta Oliveira Martins<sup>12</sup>. Orduan, jada aipatu dugun Anteroren idazkiari, 1868koa, gehitu dakioke haren hitzaldia, *Causas da decadência dos povos peninsulares*; 1871n aurkeztu zuen «Conferências

## OHARRAK

8 | Honek ez du esan nahi, ezta gutxiago ere, arlo honetan balio handiko ikerketak ez daudenik, proposatutako garaian idazle eta literatur lan «iberiarzaleei» buruzko datu funtsezkoak ematen dituztenak. Agian, iberismo kultural edo literarioaren historia honetara gehien hurbiltzen den ekarpena César Antonio Molinarena da (1990); honen akatsa, berriz, honako hau da, material pilaketa hutsa da, elkarrekin lotzen dituen diskurtso historikorik gabekoa. Egile eta lan zehatzei emandako ikerketak hainbeste dira, ezen ez da bideragarria, ezta baliagarria ere, hemen banan banan zenbatzea, aurrerago haietako batzuk dagokienez lekuan aipatuko badituzte ere.

9 | Bereziki, oraindik ez dira elkarrekin lotu, modu zabalean, iberismoa eta XIX. mendean Espainia eta Portugal astindu zituzten, bata bestearen atzetik, krisi ekonomiko, sozial eta politikoak (Hegoamerikako kolonien galera, 1890eko ingelesaren Ultimatum, 1898ko krisia...) Ikuspuntu iberiarra, egile, lan eta mugimenduen hartu-emanetan, argigarria gerta daiteke bi herrialdeek norberaren nortasun krisiari nola egin zioten aurre zehazteko.

10 | Eztabaidagarria da esatea, adibidez, Unamuno Euskal Herria-Portugal harremanaren ordezkaria dela; Maragall iberismoak, berriz, mugimendu ideologiko zabalago bati erantzuten dio, Katalunia eta Portugalen arteko harremanak, aldika behintzat, baldintzatzen dituenak.

11 | Hemen daukadan espazio mugatuak eta orrialde hauen lehen hurbilpena izatearen ezaugarriak azaltzen dute zergatik hartzen diren egile nagusiak, bigarren mailakoak kalte; jakina, iberismo kulturalari buruzko

do Casino» jardunaldietan. Anterorekin batera parte hartu zuten honako intelektual hauek: Augusto Soromenho, Eça de Queirós eta Adolfo Coelho. Laster gobernuak debekatu zituen hitzaldi horiek. Era berean, argi dago Oliveira Martinsen lanak, *História da Civilização Ibérica*, atal honetan betetzen duela leku nabarmena, iberismo kulturalaren (edo, nahiago izanez gero, zibilizazionala) pentsamendua laburbiltzen du-eta, Miguel Unamuno edo Menéndez Pelayo bezalako idazleengan eragin funtsezkoa izan zuen-eta. Gogoratu behar dugu Oliveira Martinsek bere lanetan ezarrita utzi zuen «una civilización representada por dos naciones», eta «son comunes, no solo los sentimientos fundamentales, como también muchos de los trazos particulares de la historia de las dos monarquías» (Martins, 1879: 173).

Behin eta berriz alderatu dira 70eko Geração eta Espainiako 98ko Belaunaldia, nazioaren etorkizunarekiko kezkatatik, berrizatzeko asmoetatik eta politika nazionalan izan zuten konpromisoetatik. Hala ere, konparazio justuagoa egitearren, errealitatearekiko emankorragoa eta zuzenagoa gerta daiteke idazle espainiar talde batekin, orokorrean «belaunaldizat» hartu ez badituzte ere, kronologikoki hurbilagoak direlako, hala nola Juan Valera, Leopoldo Alas 'Clarín', Emilia Pardo Bazán, Giner de los Ríos anaiak edo Menéndez Pelayo, horiek guztiak lusofilo eta iberiarzale amorratuak ziren. Agian, kasurik interesgarriena Juan Valerarena da, horren iberismoa bilakatu zelako baikortasun posibilista batetik eszeptizismo errealista batera<sup>13</sup>. Valeraren izpiritu iberiarzalea gauzatu zen, batez ere, egunkarietarako idazkietan, esaterako, berak sortu zuen *Revista Peninsular* aldizkarian, eta bereziki aldizkari horretan bertan 1861-1863 tartean argitaratu zituen zazpi artikuluetan, "España y Portugal" izenburu orokorraren azpian. Bilduma hori bete zuen *El Contemporáneo* (ikus Romero Tobar, 2013: 192) aldizkarian atera zituen beste bi artikuluekin, momentuko harreman iberiarren ikuskera adierazi zuen, Pío Gullónen idazkiari, *La fusión ibérica* (polemiko, ezaugarri anexionista zela eta) erantzunez. Bere aldetik, Leopoldo Alas 'Clarín' Liga Literaria Hispano-Portuguesa (ikus Utt, 1988: 203-226) ekimen kulturalaren sustatzailea izan zen, jakin dezakegunez arrakastarik gabekoa, Joaquim de Araújo poeta portugaldarraren laguntzarekin, Campoamorrek, Pérez Galdósek, Giner de los Ríosek, Núñez de Arce edo Palacio Valdésekin, besteren artean, parte hartzeko hitza eman zioten.

XIX. mendearen amaierara helduta, argi dago Unamunoren irudia mugari ekidinezina dela, harreman iberiarrak direla eta; baina ez soilik, sarritan nabarmendu den bezala, «portugaldar arimaren» jakintzetatik, ezta bere garaiko idazle eta intelektual nagusiekin izan zuen gutun trukaketatik, baizik eta, batez ere (horixe da, behintzat, nire interpretazioa), giltzarria delako maila kultural eta literarioan Portugal, Katalunia eta Gaztela/Espainiaren arteko hirukia

## OHARRAK

1 | lan zabalago batek eskatuko luke, alde batetik, aipatutako idazleen kopurua handitzea, eta bestetik idazle hauen tratamendua sakontzea.

12 | Belaunaldi honetako beste idazleen harremana, iberismoarekin, edo urrutikoa da, edo ez da existitzen, esaterako Eça de Queirós; egile honentzat Espainiarekin batzeko ideia portugaldarren abertzaletasun berriztatzailea pizteko aitzakia baino ez zen. Ikus. Medina (1973).

13 | Gogoratu behar dugu Juan Valera Lisboan bizi izan zela, bizitzako hainbat alditan; era berean gogoratu behar dugu Oliveira Martinsek bere *História da Civilização Ibérica* dedikatu ziola, hain zuzen, Juan Valerari.



osatzeko unean (laukia bihurtuko zelarik, Unamunoren euskal jatorriari garrantzia emanez gero). Gogoratu behar dugu, hain zuzen ere, Unamunok prestatu zuela, Joan Maragallekin batera, literatur aldizkari iberiar bat, Penintsulako hizkuntza guztietan idatzia; aldizkaria ez zen argitaratu, lehenbizi sustatzaileek zituzten zalantza eta arazo logistikoak zirela kausa, azkenik Joan Maragall 1911n hil zen-eta. Edonola ere, ekimen honek ematen digu Unamunoren iberismoaren berri, ez zen inoiz politiko hutsa izan, baizik eta kulturala edo «izpirituala», Marcos de Dios (1985: 28) egilearen definizioa erabilita. Miguel de Unamunoren bitartekari lan honen garrantziaren aldean, 98ko Belaunaldiko beste idazleen interes iberiarzaleak ahaztu edo gutxietsi dira, hala nola Ramiro de Maeztu edo Ramón María del Valle Inclán; azken honek, Eça de Queirós Espainian itzuli eta ezagutarazteaz gain, federazio iberiarraren sorrera ere defendatu zuen (Molina, 1990: 20).

Garai horretan, iberismoaren eta katalanismoaren arteko harreman sakonena ematen dela azpimarratu behar dugu: Joan Maragallez gain, «uno de los más exaltados iberistas de todos los tiempos, si no el más exaltado iberista español» García Morejón (1964: 365), iberiarzaleen lerroetara, planteamendu oso pertsonalekin, beste idazle batzuk bildu ziren, hala nola Ribera i Rovira (honen *Iberismeri* hitzaurrea jarri zion, besteak beste, Teófilo Bragak), Eugeni d'Ors, Josep Pla edo Gaziela (ikus Magalhães eta Fernandes da Silva, 2013; Martínez-Gil, 2013). Portugaldarren aldean, XX. mendearen hasierako lehenengo urte hauetan, iberiarzaleen bozeramaile nagusia izan zen Teixeira de Pascoaes *saudosista*, Miguel de Unamunoren berriemaile kutunena eta «el más impenitente colaborador portugués en la prensa literaria española de ese tiempo» (Molina, 1990: 25). Bere iberismoa, izan ere, estu lotuta dago bere *saudosismoarekin*; honela, *La Vanguardia* egunkari katalanean, eta ez kasualitatez, argitaratu zen idazki batean, Pascoaesek hauxe idatzi zuen: «La saudade es portuguesa como es gallega y catalana. La saudade es Fray Agustín de la Cruz, como es Rosalía de Castro y Juan Maragall. La Saudade ciñe casi toda la Iberia en un abrazo, como las brumas del mar...» (in Franco, 2013: 27).

Abangoardiako mugimendu espainiar eta portugaldarraren arteko harremanei dagokien atalak ekarpen ugari izan ditu dagoeneko, bereziki Antonio Sáez Delgadoren lana, *Órficos y Ultraístas* (2000). XX. mendearen lehen hereneko Iberismo kulturalaren nahitaezko zenbait izen, mugaren alde batean zein bestean, honako hauek dira: Fernando Pessoa<sup>14</sup>, António Sardinha, Almada Negreiros, Ortega y Gasset edo Giménez Caballero. Egile horiek, hainbat kasutan, batasun politikoaren aurka daude guztiz, baina, aldiz, hurbilketa kultura baten aldekoak dira, baita herrialde bion arteko koordinazio estrategiko baten aldekoak ere (esaterako, António Sardinha eta bere *Alianza Peninsular*, 1925). Garai horretan (eta ez soilik horretan) berebiziko

## OHARRAK

14 | Espainia eta iberismoari buruzko testuak, gehien batean argitaratu gabeak, Jerónimo Pizarrok eta Pablo Javier Pérez Lópezek kontu handiz bildu eta argitaratu dituzte, honako lanean: *Ibéria. Introdução a um Imperialismo Futuro* (2012); Antonio Sáez Delgadok gaztelaniara itzuli ditu.

garrantzia dute aldizkako argitalpenek, haietako asko oraindik ikertu gabeak, egile nabarmenen ekarpenak berreskuratzeko<sup>15</sup>. Aipatu behar dugu, adibidez, *Revista Contemporânea* aldizkaria, edo oso ezagunak diren *Presença* edo *Orpheu*, baina baita Giménez Caballerok sortu zuen *La Gaceta Literaria* ere, edo Almada Negreirosek argitaratu zuen aldizkaria, *Sudoeste*.

Lehenago esan dugun bezala, Gerra Zibilaren hasierak, Portugalen Salazarren Estado Novo indarrean zegoen bitartean, Espainia eta Portugalen artean garai berri bat abiarazi zuen harreman politikoetan, baita kulturaletan eta literarioetan ere. Ezin dugu esan eten erabatekoa izan zenik, salazarismoarenean eta frankismoarenean, lurrazpikoak eta noizbehinkakoak izanagatik ere, harreman literario eta kulturalak izaten jarraitu zuten-eta; baina jada ez zuten izan gorago azaldu ditugun hamarkadetako intentsitatea eta garrantzia.

## 2. Literaturaren historia iberiar bat?

Aurrekoaz gain, badago beste ikuspuntu bat, iberismo kulturalaren eta literaturaren arteko harremana dela eta; atal honetan saiatuko gara aztertzen: literatura iberiarren nazioen gaineko ikuspenak izan zuen, edo izan zezakeen eragina, XIX. mendearen bigarren erdialdeko eta XX. mendearen lehen erdialdeko literaturaren historia osatzeko orduan.

Lehenbizi aipatu behar dugu espainiar eta portugaldar literaturen ikuspen bateratua ez zegoela, inolaz ere, XIX. mendeko historiografiaren aukeretatik at. Beste idazkitan frogatu dudan bezalaxe (Pérez Isasi, 2012), erromantizismo europarraren begiradapean —Europa modernoan kartografia intelektuala sortu zuen hori—, Iberiar Penintsula agertzen zen esparru era berean bat eta hainbatekoa bezala. Eta ez soilik Europako Hegoaldean (latindarra eta katolikoa) sartzan zelako<sup>16</sup>, baita XIX. mendean zehar literatura iberiarren historiagileek proposatu zuten (edo aintzatetsi zuten, hala nahi bada) Penintsulako nazioen artean harreman eta jarraipen zabal eta sendoak bazeudelako ere.

Orduan, esaterako, Simonde de Sismondiren lanak, *De la littérature du Midi de L'Europe*, Europako Hegoaldeko literaturen historia bat egiten du (espainiarra eta portugaldarra barne), ez espazio kontu hutsagatik, baizik eta, bere ustez, haien artean badagoelako bateratze hau egiteko aukera ematen duen batasun oinarritzko bat:

Je n'ai pu cependant exécuter qu'une partie du plan que je m'étais d'abord proposé. Il s'étendait à toute l'Europe, et je n'ai parlé que des peuples du Midi de cette contrée. Mais ces derniers forment un ensemble que j'ai cru pouvoir détacher des peuples du Nord. (Simonde de Sismondi,

## OHARRAK

15 | César Antonio Molinaren hitzetan: «Como ya hemos podido ir comprobando, las fuentes imprescindibles para conocer los orígenes literarios (los políticos habría que seguirlos también por otros rumbos que nos son ajenos) del iberismo se encuentran, como tantas otras veces, perdidas en las hemerotecas. La base para conocer los altibajos en las relaciones culturales entre uno y otro país peninsular, solamente saldrán a la luz tras un profundo y amplio levantamiento —al menos de un siglo— de la prensa diaria y periódica» (1990: 21)

16 | Izan ere, Europako nazioen banaketa, «ekialdekoak eta mendebaldekoak», oso presente dago Schlegel anaien lan eraginkorretan: «La poesía de los países católicos, la española, la italiana y la portuguesa, forman en [la Edad Media] un conjunto íntimamente unido» (Schlegel, 1843, II: 85); Madame de Staëlen *De l'Allemagne* lanean ere agertzen da, pixka bat desitxuratuta: «On peut rapporter l'origine des principales nations de l'Europe à trois grandes races différentes: la race latine, la race germanique et la race esclavonne. Les Italiens, les Français, les Espagnols, ont reçu des Romains leur civilisation et leur langage; les Allemands, les Suisses, les Anglais, les Suédois, les Danois et les Hollandais sont des peuples teutoniques; enfin, parmi les Esclavons, les Polonais et les Russes occupent le premier rang. Les nations dont la culture intellectuelle est d'origine latine sont plus anciennement civilisées que les autres» (Stäel, 1813: I, 45).

Hain zuzen ere, espainiar eta portugaldar literatura bereizita ikertzen dituzten literaturaren historiek, adibidez *Geschichte der Poesie und Beredsamkeit seit dem Ende des dreizehnten Jahrhunderts*, jatorrian Friedrich Bouterwekek argitaratu zuena 1801. eta 1819. urteen artean, eta gaztelaniara hamar urte beranduago itzuli zutena, bi literatur iberiar hauek elkartzan dituen batasun oinarritzko bat aipatzen dute:

Así, se unieron españoles y portugueses desde los inicios de su cultura en uno y el mismo tipo de forma y espíritu poéticos. No obstante, lo que de diferente y peculiar tiene la bella literatura de ambas naciones lo mostrarán entre otros los libros que siguen. (Bouterwek, 1829: I, 24)

Espainiako eta Portugaleko literaturak (baina ez gaztelaniaz edo portugesez soilik) batera, edo behintzat elkarrekin, ikertzeko joera hori nolabait abandonatu edo hondoratu zen espainiarrak edo portugaldarrak beraiek historiografia literarioa garatzen hasi zirenean, ikuspegi nazionalista eta liberaletik. 1840-50 urteotan, beraz, kultura zentralizatzeko eta berdintzeko joera sendotu zen, estatu nazionala eraikitzeko unean, honela literatura prototipikoki espainiarra (esate baterako) ez da definitzen «Espainian idazten den literatura» bezala, baizik eta, funtsean, «gaztelaniaz idazten den literatura» bezala, honez gain erantzun behar die zenbait eskakizun kultural, erlijioso eta moralari (Pérez Isasi, 2013)<sup>17</sup>.

Portugesaren kasuan, kanonaren gorputzeko osagai “arrotzak” kentzeak behartzen du, bereziki, espainiarrarena baztertzen, bai barroko gongorazalearen estiloaren eraginaren kontra, bai Monarkia Bikoitzaren garaian (1580-1640) Espainiak egin zuen menpekotasun politiko-kulturalaren kontra, bai egile portugesen beraien kontra, XVI. eta XVII. mendeetan gaztelaniaz (lan osoa edo parte bat) idatzi zutenak. Kanonaren babes nazionalista horren adierazpide muturrekoa idazle hauek guztiz ezabatzean datza<sup>18</sup>.

XIX. mendeko bigarren erdialdeko iberismo kulturalaren garapenak, berriz, eragina izan zuen literatur historiografian: nabaria da orain arte aipatu ditugun zenbait egile, iberismo kulturalaren zaleak, idazleak izateaz gain, historiagile adituak zirela. Beraz, esaterako, Teófilo Bragaren *Theoria da historia da litteratura portugueza* (1872) liburuak, bere *Historia de la literatura portuguesa* lanaren oinarria ezartzen duenak, Oliveira Martinsen *História da civilização ibérica* liburuaren eragin argia dauka; proposamen horren arabera, espainiarren eta portugaldarren patu nazionala banandu zuena begirada eta interesak bildu zituen jomuga izan zen: espainiarrak Europa eta Mediterraneoari begiratu zioten, portugaldarrek Atlantikoari.

## OHARRAK

17 | Honela gertatzen da, baita hegemonikoak ez diren ahotsak sartzen diren literatur historiaren ere. Hauxe da, esaterako, Amador de los Ríos-en *Historia crítica de la literatura española* liburuaren kasua, lan handizalea, espainiar lurraldean argitaratutako edozein literaturari heldu nahi ziona, edozein hizkuntzatan eta edozein garaitan (latina, arabiera, hebreera barne, gaztelaniaz, katalanaz gain...), baina, hala ere, edozein modutan gaztelaniar literaturari ematen dio lehentasuna: «...a pesar de la vitalidad que todavía entrañaba la nacionalidad catalana, y verdes aún los brillantes lauros ganados por sus más celebrados poetas, comienza a recibirse en aquellas regiones, y dentro de su propio parnaso, la influencia de la lengua y del arte, que florecen en la España Central, augurando ya claramente, conforme dejamos advertido, la grande unidad literaria, cuya realización no estaba en verdad muy lejana» (Amador de los Ríos, 1861-5: VI, 487).

18 | «Por esta dificuldade de encontrar os livros necesarios é que prescindí n’este Ensaio de mencionar os Poetas, que só escreveram em latin, e em hespanhol, bem que entre estes haja muitos de grande merecimento, e cujas obras possuo, ou tenho visto: mas fallando em rigor, esta falta nao deve tornar-se mui sensível, porque Poetas, que só escreveram em verso Latino, ou Castelhana, posto que nacessem em Portugal, nao sam Poetas Portuguezes» (Lopes de Mendonça, 1849: 5-6).

---

No problema da raça não ha hespanhões nem portugueses. A separação começa na formação da nacionalidade. [...] O portuguez não distanciava bastante do hespanhol nem pela raça nem pelo territorio, para poder constituir-se em nação; comtudo a proximidade do oceano Atlantico creou um instincto, que nao nasceria longe d'este meio. (Braga, 1872: 12)

Zenbait urte beranduago, hezkuntza curriculumean moldatu zen *Curso de historia da literatura portuguesa* batean, arraza iberiarraren batasunaren ideari ekiten dio berriro, Penintsulako nazionalitateen aniztasunean:

Assentando estes principios, nao pretendemos inventar uma raça portugueza; assim como esta nacionalidade se constituiu pela tendencia separatista dos antigos estados peninsulares, tambem a raça é a integraçao de todos os elementos ante-historicos e historicos que forma fusionando n'este solo, e que pela sua persistencia se podem distinguir em tres pahses sociais, os *hispano-romanos*, os *hispano-godos* e os *hispano-arabes*. (Braga, 1885: 11-12)

Espanian, bere aldetik, Marcelino Menéndez y Pelayo bezalako kritikari eragile batek defendatu zuen, hainbat lanetan, jadanik aipatu dugun Oliveira Martinsen *Historia de la civilización ibérica* argitaratu aurretik ere, Penintsula iberiarraren literatura guztiak batera ikertzeko beharra. Beraz, adibidez 1878ko *Programa de Literatura Española* lanean:

Españoles fueron en la Edad Media los tres romances peninsulares: los tres recorrieron un ciclo literario completo, conservando unidad de espíritu y parentesco de formas en medio de las variedades locales. Eran tres dialectos hijos de la misma madre, habla dos por gentes de la misma raza, y empeñadas en común empresa. Las tres literaturas reflejaban iguales sentimientos y parecidas ideas, y recíprocamente se imitaban y traducían y cedieron el mismo paso a extrañas influencias. (...) Dios ha querido además que un misterioso sincronismo presida al desarrollo de las letras peninsulares. No hay transformación literaria en Castilla a que no responda otra igual en Lusitania. (Marcelino Menéndez y Pelayo, 1878)

Batasunaren ideia, edo behintzat literatura bien bilakaera paralelo estu baten ideia, XIX. mendeko azken hamarkadetan espainiar literaturaren beste historiari errepikatuko den pentsamendua da (esaterako, Rodríguez Miguélen lana, 1892). Portugalen, XX. mendean lehen herenean, irakurketa paralelo horren proposamenak bultzada berri bat jasoko du, sistematizazio handiago batez, Fidelino de Figueiredoren lanari esker. Egile hori Portugaleko Literatura Konparatuko sustatzaile nagusia da, funtsezko hainbat lanetan, adibidez *Pyrene: ponto de vista para uma introdução à história comparada das literaturas portuguesa e espanhola* (1935) (ikus Ângela Fernandes, 2013). Lehenago ere, bere *Estudos de Litteratura* lanean, honako hau baieztatzen zuen:

---

Ha uma tradição dramática peninsular, mas nenhuma das literaturas a possui em toda a sua plenitude, no conjunto do seu desenvolvimento histórico. Castella, o centro geográfico da Península, como afirmou Pelayo, teve a glória de possuir o momento augusto dessa tradição, mas sem a curva do desvio que para dentro da fronteira portuguesa descreve essa tradição, sem se considerar o teatro vicentino, até mesmo essa tradição (...) seria incompleta e ilógica, porque o teatro de Encina, Torres Naharro e Gomes Manrique tinha caracteres estéticos diversos daqueles que, depois do impulso genial de Gil Vicente, ostentou e se incorporaram na tradição peninsular. (Figueiredo, 1921: 19-20).

Dena dela, ez dugu literatur iberiarrekiko hurbilpen mugaz gaindiko hauen garrantzia esajeratu behar, ez kopuruagatik, ezta orokorrean izan zuten eraginagatik. Lehenbizi, ez dagoelako, liburu bakar batean, espainiar eta portugaldar literaturak biltzen duen historiarik, gorago erakutsi ditugun baieztapen teoriko zein metodologikoak gorabehera. Horrez gain, literatur historia nazionalak (zehatzago, nazionalizatzaileak), izpirituzentralista, kanonizatzaile eta berdintzaile batek osatuek, erdiguneko lekua betetzen dute, bai argitalpen espainiarretan bai portugaldarretan, neurri handi batean estatuko hezkuntza egitasmoen laguntzaz. Kontrasterako edo behintzat plurala izateko ikuspena osatzeko proposamena beti jaio zen, beraz, ondoko herrialdeekiko sinpatia sentitzen zuten ikerleengandik, gehien batean Oliveira Martinsen iberismo kulturalaren eraginagatik. Estado Novo eta Frankismoa heldu zirenean (Espainiako kasuan 98ko Belaunaldiko eta Ramon Menendez Pidalen tesi «gatzelazaleen» garapenarekin), literatur historiografia iberiarrak hartu zuen —agian berreskuratu zuen— geroko hamarkadetan nagusi izango den molde zentralista hegemonikoa.

### 3. Behin behineko ondorioak

Ez da guztiz zentzugabea, ikusi dugun bezalaxe, iberismo politikoa porrot egin duen mugimendu politikotzat hartzea, zenbait intelektual eta politiko liberal (hasieran) eta errepublikazaleak (beranduago) kutsatu zituen, baina ezin izan zuen gizartean errotu, ezta berehalako eragin politikorik sortu ere. Edonola ere, mugimendu intelektual bezalako balorapen orokorrean kontuan izan behar dugu haren bilakaera, XIX. mendearen azken herenean, iberismo kultural baterantz, azpimarratzekoa da ere haren elkarlana Penintsulako mugimendu politiko, literario eta kulturalekin, behintzat Espainiako Gerra Zibila hasi arte.

Aurreko orrialdeetan saiatu naiz literatura eta iberismoaren arteko harremanetarako hurbilpena egiten; bi lerro paralelo, baina elkar ukitzen dutenak, osatu ditut: lehenbizi, iberismo kulturalaren literatur eraginen panorama orokorra zirriboratu dut, Portugalen zein Espainian (eta Katalunian), 1868. eta 1939. urteen artean bi



---

herrialdeen eta kulturen arteko hurbilpena sustatu zuten idazle, lan eta mugimenduen laburpen baten bidez; bigarrenez, garai horretan bertan argitaratu zen historiografia literarioaren joera bat berreskuratzeko proposamena luzatu dut, hortxe agertzen delako iberismo kultural honen eragina, Penintsulako literaturak batera edo gurutzatuta hartzen direlarik.

Lan egiteko bi lerroek, etorkizunean garapena eskatzen dutenek, literatur harreman iberiarren arloan oraindik ikertzeko esparru asko daudela erakusten dute; baita beste garaietan (testu honetan aztertzen den garaia baino lehen edo geroagoan), zehazki iberismoaz, mugimendu politiko zein kulturalaz, hitz egin ezin daitekeenean, Penintsulan nazioarteko harremanen existentzia —erakundeen artekoa zein lurrazpikoa, gutxiengo batekoa zein gehiengoarena— planteatu daiteke. Ikerketa iberiarrak jaio ziren, idazki honen hasieran baieztatu dudan legez, korronte hau zehazteko eta deskribatzeko saiakera bezala, ezarritako mugetatik gaindi edo muturretik, etengabe, agian ez modu berean, historian zehar mantendu den korronte hau gureganaino heldu da-eta. Jose Saramagok bere idazkian, «Mi iberismo», baieztatzen duen bezala, «¿El iberismo está muerto? Sí. ¿Podremos vivir sin *un* iberismo? No lo creo» (Molina, 1990: 9).

## Bibliografía

- AMADOR DE LOS RÍOS, J. (1861–5): *Historia Crítica de la literatura española*, Madrid: Imprenta de José Rodríguez.
- BOUTERWEK, F. (1829): *Historia de la literatura española*, Madrid: Verbum, 2002.
- BRAGA, T. (1872): *Theoria da historia da litteratura portugueza*, Porto: Imprensa Portuguesa.
- BRAGA, T. (1885): *Curso de historia da literatura portuguesa, adaptado ás aulas de instrucção secundaria*, Lisboa: Nova Livraria Internacional.
- BUFFERY, H.; DAVIS, S. y HOOPER, K. (2007): *Reading Iberia: Theory / History / Identity*, Oxford: Peter Lang.
- CABO ASEGUINOLAZA, F.; ABUÍN, A. y DOMÍNGUEZ, C. (eds.) (2010): *A Comparative History of Literatures in the Iberian Peninsula* (vol. 1), Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins.
- CASAS, A. (2003): "Sistema interliterario y planificación historiográfica a propósito del espacio geocultural ibérico", *Interlitteraria*, 8, 68-96.
- EPPS, B. y FERNÁNDEZ CIFUENTES, L. (2005): *Spain beyond Spain. Modernity, Literary History and National Identity*, Lewisburg: Bucknell University Press.
- EVEN-ZOHAR, I. (1990): *Polysystem Studies*. Número monográfico de *Poetics Today. International Journal for Theory and Analysis of Literature and Communication*, vol. 11, núm. 1.
- FERNANDES, A. (2013): «Iberian and Roman Identities: Literary Representations of the Centre and the Margins», en Pérez Isasi, S. y Fernandes, A. (eds.): *Looking at Iberia. A Comparative European Perspective*. Oxford: Peter Lang, 219-230.
- FIGUEIREDO, F. (1921): *Estudos de Litteratura (Terceira Série: 1918-1920)*, Lisboa: Clássica Editora de A. M. Teixeira.
- FRANCO, A. C. (2013): «Teixeira de Pascoaes», en Magalhães, G. y Fernandes da Silva, F. (eds.): *El dret al futur – O direito ao futuro*, Lisboa: Humus, 23-31.
- GARCÍA MOREJÓN, J. (1964): *Unamuno y Portugal*, Madrid: Ediciones Cultura Hispánica.
- LOPES DE MENDONÇA, A. P. (1849): *Curso de litteratura professado no gremio litterario*, Lisboa: Tipografia de Antonio José da Rocha.
- MAGALHÃES, G. y FERNANDES DA SILVA, F. (eds.) (2013): *El dret al futur – O direito ao futuro*, Lisboa: Humus.
- MARCOS DE DIOS, A. (1985): *Escritos de Unamuno sobre Portugal*, París: Fundação Calouste Gulbenkian, Centro Cultural Portugués.
- MARTÍN-ESTUDILLO, L. y SPADACCINI, N. (eds.) (2010): *New Spain, New Literatures*, Vanderbilt University Press.
- MARTINS, Joaquim Pedro de Oliveira (1879): *História da Civilização Ibérica*, Lisboa: Círculo de Leitores, 1987.
- MARTÍNEZ GIL, V.: «A visão luso-catalã da Ibéria», en Gimeno Ugalde, E.; Fernandes da Silva, F y Serra Lopes, F. (eds.): *ACT 25 - Catalunya, Catalunha*, Lisboa: Humus – Benicarló: Ed. Onada, 55-87.
- MATOS, S. C. (2006): «Iberismo e identidade nacional (1851-1910)», *CLIO. Revista do Centro de História da Universidade de Lisboa*, 14, 349-400.
- MATOS, S. C. (2007): «Conceitos de Iberismo em Portugal», *Revista de História das Ideias*, 28, 169-193.
- MEDINA, J. (1973): «Eça de Queiroz e o iberismo (Reflexos da questão ibérica na obra de Eça de Queiroz, de 1867 a 1888)», *Sillages*, 3, 9-31.
- MENÉNDEZ PELAYO, M. (1878): «Programa de literatura española», en *Estudios y discursos de crítica histórica y literaria*, vol. I, *Menéndez Pelayo Digital*, CD-ROM, Santander: Digibis.
- MOLINA, C. A. (1990): *Sobre el iberismo y otros escritos de literatura portuguesa*, Madrid: Akal.
- PÉREZ ISASI, S. (2012): «Imágenes de la Península Ibérica en la historiografía literaria romántica europea», en *Imagologías Ibéricas. Construyendo el otro peninsular*, Mérida: Gabinete de Iniciativas Transfronterizas, 181-198.
- PÉREZ ISASI, S. (2013): «The Limits of "Spanishness" in Nineteenth-century Spanish Literary History», *Bulletin of Hispanic Studies* 90/2, 167-188.

- PÉREZ ISASI, S. y FERNADES, A. (eds.) (2013): *Looking at Iberia. A Comparative European Perspective*, Oxford: Peter Lang.
- PESSOA, F. (2012): *Ibéria. Introdução a um Imperialismo Futuro*, Pizarro, F. y Pérez López, P. J. (eds.), Lisboa: Ática.
- QUENTAL, A. de (1868): «Portugal perante a revolução de Espanha. Considerações sobre o futuro da política portuguesa no ponto de vista da democracia ibérica», en *Prosas sócio-políticas*, Serrão, J. (ed.), Lisboa: Imprensa Nacional-Casa da Moeda, 1982, 211-241.
- QUENTAL, A. de (1871): «Causas da decadência dos povos peninsulares», en *Prosas sócio-políticas*, Joel Serrão (ed.), Lisboa: Imprensa Nacional-Casa da Moeda, 1982, 255-296.
- RESINA, J. R. (2009): *Del hispanismo a los estudios ibéricos. Una propuesta federativa para el ámbito cultural*, Madrid: Biblioteca Nueva.
- ROCAMORA, J. A. (1994): *El nacionalismo ibérico*, Valladolid, Universidad de Valladolid.
- ROMERO TOBAR, L. (2013): «Valera's Iberism», en Pérez Isasi, S. y Fernades, A. (eds.): *Looking at Iberia. A Comparative European Perspective*, Oxford: Peter Lang, 181-200.
- SÁEZ DELGADO, A. (2000): *Órficos y Ultraístas. Portugal y España en el diálogo de las primeras vanguardias literarias (1915-1925)*, Mérida: ERE.
- SARDICA, José Miguel (2013): *Ibéria. A Relação entre Portugal e Espanha no século XX*, Lisboa: Aletheia.
- SARAMAGO, José (1990): «Mi iberismo», en Molina, C. A.: *Sobre el iberismo y otros escritos de literatura portuguesa*, Madrid: Akal, pp. 5-9.
- SCHLEGEL, F. (1843): *Historia de la literatura antigua y moderna*, Barcelona: Libr. de J. Oliveres y Gavarró.
- SIMONDE DE SISMONDI, J. C. L. (1813-4): *De la litterature du Midi de l'Europe*, París: Treuttel et Würtz.
- STAËL, A. L. G. (1813): *De l'Allemagne*, París: GF-Flammarion, 1968.
- UTT, R. L. (1988): *Textos y con-textos de Clarín: Los artículos de Leopoldo Alas en 'El Porvenir' (Madrid, 1882)*, Madrid: Istmo.